



PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)  
20003 Donostia / San Sebastián

## MOZIO ARRUNTA

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du, elkarreragingarritasunik ez izatea eta Mugi sistemaren deskontuak aplikatzeko arazoak izatea dela eta.

## JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoaren kudeaketa eta integrazioa osatu gabe den sistema da gaur egun, ez dago oso koordinatuta eta zigortu egiten ditu Gipuzkoako erabiltzaileak eta, beraz, donostiar guztiak.

Gaur egun, batez ere 3 arazo ditu sistemak Gipuzkoan:

### 1.- Elkarreragingarritasuna

Elkarreragingarritasuna, hau da, Bat, Barik, bankuko txartelak edo NFC sistema erabiliz ordainduta sartu ahal izatea bidaiariak Lurraldebusen zerbitzuetara, ez dago erabat operatibo Gipuzkoan, nahiz eta Mugikortasun Jasangarriaren Euskal Legeak 2025a bukatu baino lehen elkarreragingarritasuna ezarrita izatea jarri zuen helburu.

### 2.- Mugi birtuala

2023ko martxoan, urte hartako udarako mugi birtuala jarrita izango zela agindu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak; baina, hala ere, betekizun geratu dira, behin eta berriz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak berak bere buruari jarritako epeak, eta oraindik ez da mugi birtualik.

### 3.- Online erostea zigortzen duten deskontuak

Bilbora edo Gasteizera joateko autobusen ohiko erabiltzaileek saihestu egiten dute txartelak online erostea Internetez; online erosten badute, galdu egiten dute-eta bidaia batzuk metatzeagatik deskontuak izateko aukera. Ondorioz, txarteldegietara joan beste erremediorik ez dute izaten, txartelak erostekoan dagozkien deskontuak aplikatu diezazkieten.

Gainera, gipuzkoar batek Bizkaibusean bidaiatzen duenean, ez zaizkio Gipuzkoan metatutako deskontua aplikatzen, askoz ere deskontu txikiagoa baizik, eta ez du maiz erabiltzeagatik dagozkion onurak metatzen jarraitzeko modurik izaten, zeren, Bilbon egindako bidaiak (tranbia, metroa, Bilbobus edo Bizkaibus) ez dira kontuan hartzen deskontuak metatzeko, nahiz eta joan-etorri beraren parte izan, eta horrek desabantailan uzten ditu gipuzkoarrak beren lurraldetik kanpo mugitzen direnean.

Erabat hausten du garraio publiko integratuaren logika horrek, eta zigor bihurtzen du sistema, lurralde bateko baino gehiagotako sareak konbinatzen dituenarentzat.

Gabezia batzuk badituela sistemak eta Gipuzkoako garraio publikorako laguntzak geldiarazi egin ditu Garraio Ministerioak berak ere, hortik atera kontuak! Gaur egun, 2025eko bigarren seihilekoari dagozkion milioi bat euro baino gehiago zor zaizkio Donostiako Udalari bakarrik, eta 2026an beste bi milioi euro baino gehiagoko laguntza galtzeko arriskua dago.

Alegia, Gipuzkoako garraio publikoaren egungo sistemak ez duela elkarreragingarritasunik eratu oraindik, zaildu egiten duela beste lurralde batzuekiko intermodalitatea horrek eta ez dituela deskontuak ondo aplikatzen; ohiko erabiltzailea zigortu egiten du horrek, eta arriskuan jar lezake Estatuaren finantzaketa publikoa, funtsezkoa.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

## MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio osatzeko garraio publikoaren sistemaren elkarreragingarritasuna ezartzea, Aldundiak berak hartutako konpromisoak aintzakotzat hartuta.
2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio zuzentzeko deskontuak aplikatzeko eta metatzeko diren arazoak, gipuzkoarrek zigorrik ez edukitzeko deskontuak izateko eta baliatzeko garaian.

Donostian, 2026ko otsailaren 6an.

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea